

IDAZLE ZARRAK

Gure irakurleen jakintzarako eta irakurgai onuragarriak izan dagiezan, gure elerti edo literaturaren edestia, labur-labur, gaurtik aurrera zengaki batzutan idaztea otu jaku. Geienetan Aita Santi Onaindiaren liburuetatik artuk doguz jakingarriak. Bati ipiñiko dogu idatz-zatitxu bat irakurleak aztertu dagien.

Gaurko lan onetan idazle zarrak begiratuko dautsegu. Eta idazle zarrak diñogunean, 1545n. urtean lenengo liburu irarria agertu baiño lenago idatzia esan gura dogu.

Gure idazle zarrak aberastasun aundia dira elertiaren edestian.

139 olako olerki dakaz Aita Santi'k Milla Olerki Eder bare liburu gogoangarrian.

Sei arloetan moltzotuta datoz olerki guzti oneik: 1.– Gerta-olerki zarrak. 2.– Maite leloak. 3.– Irri ta negar. 4.– Ardo-kantak. 5.– Jainkotiak. 6.– Pastoralak. Or sartzen dira baita, bertsolarien lanak eta eskaleen kantak be.

Gogoratu daiguzan batzuk.

Lelo'ren kanta, Bizkaitar batek 1529n. urtean idatzia. Beotibar'ko gudua, giputzen eta naparren arteko arazoa(1321); Milia Lastur'en kantua, benetan irakurgarria. Perutxo'rena, Menendez Pelaio'k 3n. Zelestina liburuan aurkitua (1536) Alos Torrea...

Baiña idazle zar onein artean aberastasunik aundiena Pastoralak dira. Oneik ez dira besterik Ipar-Euskalerrian erdi-arotik datozen antzerkiak baiño Askok dagoz eta antzerki-arlo orretan Europa'ko abertastasunik aundiena dira. Dama de Elche'ren tankerakoak dirala esango dogu, baiña arlo zabal baten.

Ona emen Beotibar'ko zelaiaik
Len illunak gaur alaiak!

Beotibar'ko arkaitzetan
Frantzesak gure oiñetan
Arro asko sartu ziran,
umil asko irten ziran,
Oñaz agintari aundia,
Zuretzat gure bizia.

Nora zuaz, Oñaz jauna,
Frantsez jendearengana?
Edur maluta ugaria,
Ugariago etsaia.

Larrean emaztetxuak,
Begian negar-malkuak,
Atoz len bai len etxera,
Bestela oso galdu zera.

Aurrera mutil maiteak,
Etxera dollorkumeak;
Il emen edo garaitu.
Oñaz jaunak esaten du.

Zein gelditzen da atzian
Oñaz ikusita aurrian?
Zu zera nere nagusi,
Zurekin il edo bizi.

Jun dira emendik betiko,
Ez dira iñoiz etorriko,
Beti euskaldun mendiak
Ez besterentzat gaziak

OLAZAR'tar Martin'ek

MAXA IKUSPEGIA

Balkoi bat dirudizu
MAXA zoragarria
eukaldun errian,
berez zara bikaiña
oiñetik ta burura
edertasunian.

Giza jakituriak
goi-goratu zaitu
mendien artian,
ederretan ederren
Barandiaran jaunak
goratuz itzian.

Alderdi danetatik
goragarria zara
giza begietan,
Bizkai aldera adi
balkoia dirudizu
ikusgarrietan.

Ardi zuri zuriak
zoraturik dabilatz
zure magalean,
usain gozozko bedar
txit aintzagarriak
gozartuz agoan.

Irrintziak entzunda,
zaldiak, pozez, dabilatz,
mendian saltari,
gora ta gora MAXA,
dirautzo eguzkiak
MAXA guztiari.

Gozoz beterik dagoz
mendiaren egalak
eztiak ondurik,
erle aintzagarriak
goizian goiztar dabilatz
egoak zabalik

PAULIN